

Goierri tarra

310. zenbakia 2006ko azaroak 3

Alberto Eskisabel

EHIZA-TXAKUR TXAPELDUNAK HAZTEN




ITOIZ

Artisautza produktuak
eta gazte moda

San Inazio 6

BEASAIN

Tel.: 943 027 520





Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Or naburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea

BEASAIN



R.P.S.:32/04

NOBEDADEA

Moldatu zure gorputza,
KENDU LEKUKO GANTZAK
KIRURGIARIK GABE,
ultrasoinuen
bidezko lehen teknika
ez erasokorraren bidez

ULTRASHAPE
CONTOUR I
Metodoa

berogas
langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



BERTSOTAN



Aitor Sarriegi

Futbola

Partiduaren gorabeherekin pasatzen da astelehena asteartean Championsa dator (bi egunetan lehena) ta bigarrena asteazkena, baina hori ez da problema Ostegunean UEFA daukagu (europeo makalena) Ostiralean programaren bat parada eta golena Larunbatean atera edo tiki-takaren dilema ta igandeko jardunaldiak lortzen du gauza zailena beste astebetez sentiaraztea onena edo ahulena.

Futbolarien adierazpen zentzugabe ta kaskalak behin eta berriz errepikatuz telesaio printzipalak gainera aurten zelaian ere gureak behintzat makalak bietako bat masokak gara edo ez gara normalak. Egin dezagun proba txiki bat itsu ez gaitzan azalak astebeteaz ahaztu ditzagun futbolaren martingalak kaleratzeak, jokoaz kanpoak partidak eta finalak eta agian eskertuko du gure osasun mentalak.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbalde plaza, 7 - behe

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Xabier Iraola.

5. Ingurugiro txokoa: Oianguko antolamendu plan-berezia: alegazio epea zabalik.

6. Errezeta: Udare zopa zitrikozko granizatuarekin.

Aholkua: Koloreen garrantzia apaingintzan.

7. Kate motzean: Maitane Aizpurua.

8. Elkarrietzeta: Joxan Ormazabalén haur literatura jolastia.

12. Erreportajea: Josetxo Zufiurre: Beasaingo Musikak.

16. Elkarrietzeta: Alberto Eskisabel setter ingeles hazlea.

23. Iragarki laburrak.

24. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Xabier Iraola Agirrezabala

Kontraesanak

Ia zortzi urte daramat alkatetzan eta bada jasanezina dudana gaia: jendearen kontraesanak eta inkoherentziak.

Seguraski neronen jokabidetik hasi beharko nuke baina, herritarren zerbitzura bizi garenok dugun zama besteak gu kalifikatzea eta kritikatzeko dela zeharo neraganatuta dudanez, oraingo honetan, zehazki inorekin sartu gabe, herritarrak garenon neurrian, jendearen kontraesan eta inkoherentziaz mintzatu nahi nuke.

Den-denok, herritar gisara, gure herria bizia izatea eta zerbitzuak dituen gunea izatea nahi dugu. Garbia (nahiz eta zakarrontzirik inoiz ez erabili), zabor bilketa onarekin (ez dugu etxondoan nahi ez kontenedorerik eta are gutxiago zaborte-girik), gazteen aisialdirako guneekin (hori bai, gazte lekua ahal den gehiena alden du dezatela), aparkaleku nahikoarekin (kotxea edo furgoneta etxe atarian uzteko), espaloiak zabalak paseatzeko (exijenteenak, kotxea espalo gainean uzten ohi dutenak dira), garraio publikoarekin (badaezpada ere, neure kotxe pribatua matxuratzen bada), haur jolastoki handiarekin (ahal bada aldameneko herrian koka dezatela), komertzio ugari eta modernuarekin (Eroski eta Prycan hartzea ahaztu zaiguna berehala eskuratzeko), ingurune zoragarriarekin (AHTren aurka manifestatu baina etxetik 50 metrotara dagoen

tabernara kotxean joan), baserri inguruan (ximaur usainik gabe, mesedez), etb....

Kontraesanak nonnahi eta noiznahi eta amaitzeko, azkenaldi honetan sekulako amorrua sortu didan gaia azaldu nahi nuke.

Telebistan bere lanpostuan istripuz hildako langilea ikustean gure barrenean bere ingurukoenganako elkartasuna nagusitzen da eta aldi berean, enpresario maltzur eta explotatzailearen aurkako sentimendua. Hori bai, norberaren etxean obra edota erreforma egin behar denean, beraz, norbera enpresari edo promotore lanetan sartzen denean, hainbeste kritikatutako ohi ditugun enpresariaren jokabide berbera izaten dugu, segurtasun neurriak ahaztu eta eskualtera datorkigun aurrekonturik merkeena hartuz. Are gehiago, langileak inongo segurtasun neurriak gabe dihardutela ikustean, beste aldera begiratzen dugu, pentsatuz (nahiz eta jakin ez dela horrela) geuk sustatu dugun obran dauden langileen segurtasunaren ardura ez dela geure, subkontratatu dugun enpresariarena baizik.

Benetan diot, garai honetan oso zaila dela herrigintzan jardutea, herritarrak asko exijitu eta apenas lagundu edota partehartzeko prest baitago. Zorionez ("mal de muchos, epidemia" alboratu eta "mal de muchos, consuelo de tontos" esaerari helduaz) beste hainbat alkatekin hitzegin ostean, ozenki esan dezaket ez dela legorretarrok dugun gaitza berezirik eta gure gizarte moderno honetako herritarraren ezaugarria dela esan genezake, beraz ... lanean jarraitu beharko dugu.

Eskubide ugari, betebeharrak gutxi. Lau hitzotan labur daiteke egungo herritarraren jokabidea, neroni tarteko.

Eskubide ugari, betebeharrak gutxi. Lau hitzotan labur daiteke egungo herritarraren jokabidea, neroni tarteko.

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

etxekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN

Oianguko antolamendu plan-berezia: alegazio epea zabalik

2005eko otsailaren 28an Ordiziako Udalak Oiangu parkearen ustiapena 40 urterako IKENA S.L. enpresari ematea erabaki zuen, legezkoa zuen Plan Berezia egin gabe. IKENA S.L.ek aurkeztutako aurreproiektuak, parkean, golf zelai bat, paintballa, igerileku bat, jateetxea handitzea, aterpea hotela bihurtzea eta hotelaren aldamenen aparkalekua egitea proposatzen du.

Egitasmo hau Oianguko parkean gauzatu ahal izateko, Udalak, zonalde honek gaur egun Arau Subsidiario-etan duen "Landa Parke" izendapena aldatu behar du; horrela "landa parke" izatetik "heziketa, jolas eta kirol erabilera" izendapena eman beharko dio. Aldaketa hau, Plan Berezia egin eta behin betiko onartuz lortzen da. Plan berezi honen Oianguko antolamendu berria zehaztuko luke.

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorrak agintzen du, horrelako planek, Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Ebaluazio Prozedura (IGEET) izan behar dutela. Prozedura Administrazio hau martxan da jadanik eta azaroaren 16a bitartean, jendaurrean jarri du Udalak; honen bitartez zabalik dago ohar eta alegazioak aurkezteko epea.

Prozedura martxan jarzteko, Udalak, Plan Berezia-ekin batera, Ingurume-

naren Gaineko Eraginaren Ebaluazio Txostena (IGEET) egin behar izan du eta bi dokumentu hauek (Plan berezia eta IGEETa) Ordiziako Udalaren webgunean lor daitezke www.ordizia.org en.

Udalak komunikabideetan zabalduetako informazioaren arabera, IGEETan inaktuak txikiak dira orokorrean, baina honek ez du esan nahi golf zelaia edo igerilekua egiteak inaktu txikia duenik, hauen proiektu zehatza ikusi beharko da hori zehazteko. Kasu batzuetan gainera, legeak agintzen duen, Ingurumen-Inpaktuko Ebaluazioa egitea derrigorrezkoa izango da.

Beraz, Plan Berezi hau

behin betiko onartzen bada IKENA S.L. enpresak aurkeztutako proiektuak bidea zabalik izango luke.

Oiangu Parkea Bizirik Natur Elkartek alegazioak prestatu ditu, nahi duenak izenpetu ditzan. Landarlan elkarteak talde bezala alegazio hauek sinatu ditu, Udalak aurkeztutako plangintzaren aurka.

Alegazio orriak www.oiangubizirik webgunean edo Oiangu Bizirik elkarteak egun eta ordu desberdinetan jarriko dituen mahaietan lor daitezke.

Gure esku dago izadia mantentzea. Oianguko parkea manten dezagun bizirik ondorengoentzat.

*Maialen Galparsoro
Odriozola*

Oianguko ingurune naturalari buruzko datu batzuk

- ✓ Oianguko putzu edo urmaela, naturala ez bada ere, EA-Eko hezeguneen Katalogoan dago. Hezegune hauek, biosferako ekosistemarik aberats, bitxi eta hauskorrenak dira.
- ✓ Interes ekologiko handia duen Oriako ibai terraza bertan aurkitzen da.
- ✓ Gipuzkoako Mendien Foru Arau berriak, landare hesiak zaindu eta hobetzeko apustua du. Oiangu-txikira doan bide ertzean dago horietako bat.
- ✓ Plan bereziak agertzen duen Oiangu etxe inguruko aparkalekua egiteko zenbait haritz botatzeko lekarke. Zuhaitz hauek, hasierako basoaren zati bat dira.
- ✓ "Zuhaitz motzak", garrantzi kultural eta ekologiko handia dute: erabilera tradizionalaren ondorio direlako eta hauetan, hainbat intsektuk, ugaztunek, hegaztik, landare eta abarrek bizitoki aurkitzen dutelako.
- ✓ IGEETaren arabera, mehatxupear dagoen fauna ugari dago Oiangu, galzorian dagoen Bisoi Europarra barne.
- ✓ Oianguko errekatxo inguruetan, haltzak daude. 43/92/EE Habitaten Zuzentarauak lehentasunezko habitatak direla dio, inguru hauetan gainbehera datoz haltzak.

JAKIN BEHARREKOAK

Etxean energia aurreztuz. Etxe barruan berotasuna galdu nahi ez badugu, isolatu egin dezakegu; horrela berokuntzan %40 aurreztuko dugu. Etxeko tenperatura egokiena 20°C-koa da. Tenperatura hori gaintzen duen gradua bakoitzak %5 gehitzen dio energi kontsumoari. Garrantzitsua da erregulatzen ikastea: 40°C-tan urak ia-ia erre egiten du, eta ez du zentzurik izozkailuak zero azpitik 5°C baino gutxiagoko tenperatura izateak. Tenperatura horietara iristeko kontsumitzen dugun energia gehiegikeria hutsa da.

Phanerochaete chrysosporium onttoak zura jateaz gain erretxina fenolikoak ere jaten ditu. Erretxina hauek apurtzeko molekula konplexuak ditu, zaila da deskonposatzea. Adituen ustez, ontto honen laguntzaz erretxinak deskonposatzea espero dute.

Elikadura Ekologikoaren Nazioarteko Azoka. Baluarte, Iruña. Azaroak 10-12. Informazio gehiago www.feriasdenavarra.com

LIBURUA

"La deuda ecológica española" hainbat autoreen artean idatzirikoa liburua. Ed. Muñoz Moya 2005.

WEB-GUNEA

www.viacampesina.org nekazar mugimenduaren berri emango digu web honek.



Iñigo Sanchez
Urbieta jatetxea
Ataun

Osagaiak

- 3 Kgr udare
- 3 limoien zukua
- 150 gr azukre
- 2 bainila adartxo
- Ura
- Limoia, laranja, mandarina...

Udare zopa:

Udareak garbitu eta zuztarrak kendu. Puskak egin eta 24 orduz gainontzeko osagaiekin beratzen utzi. Egosi, xehatu eta iragazi. Hotza zerbitzatu.

Zitrikozko graniztua:

Zitriko guztiekin zukua

egin. Jarabearekin (almibarra) nahastu eta izotzgainuan utzi gogortu arte.

Aurkezpena:

Kopa batean hotza zerbitzatu. Koilara baten laguntzaz izoztutako zukua arraspatu. Lortutako graniztua zoparen gainean jarri.

Koloreen garrantzia apaingintzan
AHOLKUA

Kolorearen esanahia apaingintzan oso garrantzitsua da, kolorearen bitartez edozer gauza azpimarratu, disimulatu edo izkutatu baitezakegu. Bestalde, lasaitasun sentsazioa lor dezakegu, baina kontua ere izan behar da kolorearekin, kontrako erreakzioa ere gerta daitekeelako. Beraz koloreak, sentsazio onak edo txarrak sor ditzake. Horrez gainera, espazioaren sentsazioa izan dezake eraginik. Gela bat handiagotu edo txikiagotu dezake.

Hau guztia kontutan izanda, proiektu baten aurrean altzarien aukeraketa bezain garrantzitsua izan ohi da koloreak nola konbinatu jakitea. Ez da ez lan erraza, koloreen atzean esanahi asko izkututzen baitira. Gainera koloreak erlati-

boak dira, eta koloreen konbinazio ezberdinak emaitza ezberdinak dakartzate. Esate baterako, ez da gauza bera gorria beltzarekin konbinatzea edo gorria gris argiarekin.

Laburbilduz, koloreak bi talde nabarmenetan banatzen dira: kolore hotzak, berdeak eta urdinak eta kolore beroak, hori eta gorriak. Saillkapen honen atzean ez dago oinarri zientifikorik, esperientzietatik ateratako ondorioak baizik.

Kolore saillkapena aintzat hartuta eta koloreen intentsitatea apaingintzara proiektatuz emaitza honako hau izango litzateke: kolore hotzak eta intentsitate gutxiago hartzen dutela dirudi, beraz hauek dira onenak oinarritzko kolore bezala


erabiltzeko. Kolore hotzak nagusitu beharko lirateke etxe bateko gela eta atal garrantzitsuenetan.

Haatik, kolore beroak eta tonoz intentsuak direnak espazio gehiago hartzen dutenaren sentsazioa ematen dute. Horregatik, tentuz eta neurritz erabili behar dira. Egokienak dira osagarrietan eta zerbait azpimarratu nahi dugunean.

Behin altzari egokiak izanda kolorearen aukeraketa funtsezkoa dela ikusi dugu. Koloreaz edozer egin daiteke egoki erabiltzen batigu behinik behin. Gure bizimodu eta aldartearen isla izan daitezke. Gune eta une bakoitzak bere kolorea behar du. Koloreak islatu nahi dugunarekin bat datozenean asmatu egin dugula esan daiteke.



Nekane Eskisabel
Atari barne diseinua



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLERETAN

© 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

Olagi Urte guztian zabalik

Sagardotegia Eguneroko menua

Jatetxea Karta

Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA



Maitane Aizpurua, Jentilen Etorrerako sorgina



“**Ataunen esaten dugun bezala: jaiotzetik gea sorgiñek, era guztita bikañek**”

Noiztik zara sorgina?

Ataunen esaten dugun bezala: jaiotzetik gea sorgiñek, era guztita bikañek...

Non bizi zara?

Ni neu Marumendin baina Sorginak herri osoan zehar bizi dira; Lizarrustin, Balankalekun, Leizadin...

Erratz gainean jaisten al zara Atauna?

Ipuin eta kontu zaharrek hori badiote, nor naiz ni ukatzeko? Je, je, je... Sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik esan eta lekura joaten naiz.

Basajaunekin, Mikelatsekin, Totorekin... zer moduz moldatzen zara?

Kristauekin tratuan ari ez diren bitartean, ongi. Batez ere Mikelatsekin.

Egin duzun sorginkeriarik magikoena?

Sasteiko andrea uso bihurtu, San Martin Txiki erbia ... kontatuko banizu...

Sorgina Jentilen Etorreran bakarrik ala eguneroko bizitzan ere bai?

Komeni zaidan guztietan. Fama irabazi egin behar da? Je, je, je...

Erraza egiten al zaizu jendaurrean antzeztea?

Ensaioak ongi joan badira, oso erraza; fokoak, ixiltasuna... eszenarioan sentitzen dena izugarria da.

Telebistan ere aritu izan zara, Goenkalen adibidez. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Hiru bat kapitulotan lau esaldi esateari esperientzia bat deitzea gehitxo da baina beno, disfrutatu egin nuen arren, mundu horretarako ez nagoela egina ikasi nuen.

Zaletasun bat:

Astean zehar zinemara bakarrik joatea. Plazer bat da.

Odolkia ala mondejua:

Ataundar bezala, dudarik ez: Mondeju Beltza. Bere zopak, ardiki pixka bat...

Festatarako plan bat:

Zahartzen ari garen arren... Afari bat lagun artean eta kontzertu on bat.

Ataungo alkate izango banintz:


Sekula ez nuke horrelako ardura bat hartuko. Ez dut politikarako balio.

Ataungo txoko bat:

Agautz mendi tontorra.

Amets bat:

Gure seme-alabek Euskal Herri aske bat ezagutzea.



INSTALATZAILE OFIZIALA



laza

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



xetai

www.xetai.net

Armairuak · Altzariak · Osagarriak
Tel.: 943 88 43 84 Oriamendi, 30 BEASAIN

Joxan Ormazabal haur literatura jolastia

Tolosan bizi den zegamarrak urte asko daramazki haur literaturaren munduan barneratuta. Batetik, Elkar argitaletxean lan egiten du haur literaturaren esparruan; eta bestetik idatzi ere egiten du, lanak uzten dion denbora urrian. Haurrentzat sortu eta itzuli egiten du; ipuinak, poemak, abestiak. Jolastia.



Osinalde s.l.

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 Igara industrialdea, z/g
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Zein lan egiten duzu Elkar argitaletxean?

Nire lana Elkarren, Haur literatura esparrua da. Lan ezberdin asko egiten ditut. Itzulpenak egiteko lanak aukeratu, bertako idazleek ekarritako orijinalak irakurri... Taldean hartzen ditugu erabakiak. Jendearekin harremanak, aurkezpenak...

Duela 25 urte Elkarren lanean hasi zinenean, euskarazko materiala sortu egin beharko zen ezta?

Oso ezberdina zen. Gauza gutxiago zegoen eta sortu egin behar zen. Batez ere testugintza sortu behar zen. Ni etorri nintzenean, itzulpenetarako ideiak zeuden. Gauzak aldatu dira eta nik uste dut gaur egun kalitateari askoz ere gehiago begiratzen zaiola. Konpetentzia izugarria dago eta borrokatu egin behar da, Elkar azken batean enpresa bat da eta.

Garai bateko liburuak ikusi edo gaur egunekoak ikusi, bada alderik.

Askok hobetu da. Ilustrazioak, inprenta, liburuaren inpresioa, euskararen kalitatea... Gu Elkarren ari gara, urteetan arrakasta izan duten hainbat liburu hartu, eta euskara aldetik txukuntzen. Zuzendutako edizioak ari gara argitaratzen.

Kanpoko argitaletxeek ere euskaraz argitaratzen dute gaur egun.

Bai, 10-12 bat izango gara euskaraz argitaratzen dugunak. Konpetentzia hori badago eta garai batean ez zegoen. Hori ere txarra bada. Bakarra edo bakarretakoa bada, dena onartzen duzu. Baina parean jartzen bazaizkizu haien materiala ere ikusi egiten duzu. Nik uste dut hori onerako dela. Gehiago saiatzea ekartzen du horrek, atzean ez gelditzea.

Eroso sentitzen al zara haurren munduan?

Irakaslea izan naiz eta eroso sentitu izan naiz. Eroso bai, baina nire lan honetan hau-

Astoa ikusi nuen

Kantuak ere egiten dituzu.

Txanela proiektuak, lehenengo mailatik 6. mailara arteko hezkuntza proiektua da eta hor urtero-urtero bost edo sei kanta egiten dira eta nik egiten ditut. Baina kantu horiek ez dira irratian entzuten, ez dira ezagutzen... eta alde batetik pena pixka bat ematen dit. Metodologia baterako egiten duzu, eta metodo hori erabiltzen duten eskoletan kantu horiek entzuten dira, eta hortxe gelditzen dira.

Astoa ikusi nuen, Tximeleta mendian... kantu horiek bai, horiek ezagutzen dira.

Garaietakoak dira! Oraindik ere entzuten dira. 'Astoa ikusi nuen', bertso txar batzuk dira, lehenengo seirak behintzat. Baina, funtzionatu egin dute, izugarritzko arrakasta izan zuten. Alde batetik poztu egiten naiz eskola batera joan eta entzuten ditudanean. Baina beste alde batetik poztu ere egiten naiz, andereño gazteek aspaldiko gauzak utzi eta gauza berriak behar dituztela diotenean.

Irakaskuntzan sartu zinenean umeentzat euskal kantugintzan ez zen aukera



askorik egongo...

Gutxi zegoen. Imanol Urbieto zebilen, bera zen aitzindaria. Zarauzko Ikastolan bere ondoan egokitu nintzen, biok irakasleak egin eta elkarren osagarri ginen. Hark musika asko zekien eta niri letrak eskatzen zizkidan.

rrak ez dauzkat bistan, haurrak aparte daude. Lehen garai batean harreman zuzena nuen ikastolako haurrekin, baina eroso sentitzen naiz. Baina lanetik aparte, haurrekin harremana badut. Idazleen Elkartearen bidez, eskoletan ibiltzen gara, 'Idazleak eskoletan' kanpaina batean, eta hor urtero egiten ditut 12-15 bat bisita eskoletara eta benetako harremana hori edukitzen dut. Nire libururen bat hartu eta komentarioak egin, galderak egin... izaten da. Mantentzen dut harreman hori eta ona da, asko interesatzen zait. Haur literatura ez dut paperean bakarrik edo ordenagailuan bizi, eta beste proiektzio txiki hori ere badaukatu eta zuzenean askotan konprobatzen dut liburu batek funtzionatzen duen ala ez, zergatik ez duen funtzionatzen edo zergatik izan duen halako arrakasta.

Haurrak, gaiak, literatura... aldatzen ari al dira?

Nik uste dut literaturaren kontzeptua aldatzen ari dela. Gaur egun garrantzia handia ematen zaio gizarte-ko gaiak literaturan islatzeari. Gaur egun literatura asko ikuspegi pedagogikoagoarekin egiten da. Ez dakit haurrengan horrek zenbateko eraginik duen. Aldatzen ari den? Nik uste dut literatura eta gaiak tratatzeko modua aldatzen ari dela. Haurrak ere aldatzen ariko dira. Baina nire lan klaseak edo liburuak, gehiago dira dibertimendurako. Gauza arinak eta jolasti samarrak idazten ditut. Nik literatura jolas bat bezala hartzen dut. Nik literatura ez du hartzen gauza transzendental bat bezala eta munduko gauzarik inportanteena bezala. Ez dut uste literaturarekin mundua aldatuko dugunik. Beraz, nik literatura jolaseko hartzen dut, gustatzen zait eta gustatzen zait nire lan hori haurrei gustatzea, noski. Ez dut bilatzen beste eginkizun handirik. Nafa-

roako edo Bizkaiko ez dakit zein bazterretara joaten baldin banaiz, eta ume batzuk, nire liburu bat, euskaraz irakurtzen ikustea, familia guztia erdalduna duenean, izugarritzko ilusioa egiten dit. Horrelako pozak jasotzen ditut.

Ideiak nondik hartzen dituzu? Koadernotxoa eramaten al duzu beti gainean?

Bai, hala ibiltzen dut bai. Ideia guztiak askotan ez ditut apuntatzen baina hantxe jartzen ditut, beste batzuetan buruan edukitzen ditut. Askok, liburuak irakurtzen naizela hartzen ditut. Beste batzuetan, bizitzaren istorioak. Adibidez, lehenengo batean amak esan zuen etxean, bere txikitako lagunik handiena, Maria Lore zela. Eskolan berarekin ibiltzen zen eta zazpi bat urterekin, neska horren ama eskutitz batekin joan omen zen eskolara, irakurtzen ez baitzekien eta maisuari esan zion irakurtzeko. Etxean

Liburu aipagarrienak

33-34 liburu idatziak izango ditu Joxan Ormazabalek. Itzulitakoak, askoz ere gehiago. Bakarren bat aipatzeko eskatu diogu. “Oso zaila da. ‘Kittano’ gehiena saldu dena da, baina eskoletan behartuta bezala dago. Nire liburuak asko saldu dira, harrokeria ez da baina, asko saldu dira. Baina badago bat, gutxi saldu dena. Arrazoa bilatzen saiatzen naiz baina ez dut arrazoirik aurkitzen. Liburuaren izena ‘Bihotza zubi’ da. Estimaten dudan liburua da, gauza batzuk barrutik idatzia. Baina ez da agortzen liburu hori. Nire liburu gehienak birrargaratu egin dira. Behin eskola batean ‘Bihotza zubi’ liburua aukeratu zuten lantzeko. Mutilei arrosa samarra zela iruditu zitzaieela esan zidaten; baina neska batek esan zidan beraiei gustatu zitzaieela. Maitasun ikututxo bat badauka bai”, adierazi du.

Oroitzapen onak dakartzkion beste liburu bat ere aipatu du: ‘Mari Pertxenta’. “Lazkaoko Mirentxu Etxezarretarengan inspiratutakoa da. Oso neska alaia zen, adarra jotzen hasi nintzaion, eta barre egiterakoan sorgin itxura hartzen zuen... eta esan nion egunen batean idatziko nuela ipuien bat. Ez dakit liburu ona ala txarra den baina oso oroitzapen onak dauzkat eta oso ondo funtzionatu du”.

‘Hiztegi jolastia’ ere oso gogoko du. Letra bakoitzari poema bat eskaintzen dio Ormazabalek. “Liburuaren itxura ere oso elegantea da”, gaineratu du.

‘Amona bizikletan’ eta ‘Aitona parapentean’ ere jarri ditu zagamarak, eta trilogia osatzeko hirugarrena ere buruan dauka: “Buruan badaukat ideia bat, enbarazo bezala egiten dit: ‘Amona bizikletan’ liburua idatzi nuen. Funtzionatu egin zuen. Hurrengoan ‘Aitona parapentean’ idatzi nuen eta funtzionatu egin zuen. Trilogia osatzeko, ‘Aitona eta amona udalekuetan’ daukat pentsatuta. Badakit idatzi behar dudala, obligazio morala daukat. Materiala ere bilduta daukat”.

‘Antonio Bolas’

‘Antonio Bolas’ liburuarekin ere ezustekoa eraman du. “Antonio Bolasekin asko ibili nintzen, material asko neukan... baina bera bizi zen bitartean ez nintzen ausartu. Jendeak animatu egiten ninduen idaztera eta azkenean idatzi nuen. Oso gustura idatzi nuen, gainera lan handirik ere ez zidan eman. Laugarren berrargitalpenean doa. Eta nik esaten dut, hor dagoen umorea pixka bat, gaur egungo gaztetxoentzat, kaletarrentzat behintzat, garai batekoa edo dela, batzuk behintzat. Baina gustatu egin da”.



Joxan Ormazabal, ‘Antonio Bolas’ liburua egin zuenean, 2002. urtean.

zeukan umea, Mari Lore, inklusatik ekarria zena, entregatu behar zuela jartzen zuen. Negarrez hasi omen zen hauraren aurrean eta handik lasterrera Mari Lore desagertu egin zen eta gure amak ez zuen bere berri izan gehiago. Buruan sartuta daukat eta istorio horrekin ipuin bat idatz daiteke. Errazena da idazteko ideiak edukitzea. Ideiak mila dauzkat, baina gauzatzea kostatzen zait, denbora behar baita, disziplina. Beharbada, idaztetik bizi behar da.

Umeentzat idaztea ez al da bada erraza? Jende askok hori pentsatzen du.

Idea hori dagoela, seguruenik bai. Niretzat pertsonalki, helduentzat idaztea oso zaila da. Haurrentzat idaztea niretzat errazagoa da. Haur literaturako ipuina serio hartzen baduzu eta horrekin borrokatzen bazara, ez da hain erraza, lan handia ematen du. Idazle petopeto batek, liburuz liburu demostratu duenak idazle ona dela, horregatik ezin da idatzi duena erraza dela esan. Egia da haur literatura motzerako apustua dela, laburragoa da. Helduen literaturak prozesu luzeagoa, nekosoagoa dauka. Baina haurrena nahiz eta motza izan, duintasun pixka batekin hartzen baduzu, bere lana ematen du, ez da hain erraza. Konparazio batera, bertsolari batek bertso oso on bat botatzen du, izugarri ona... zenbat segundu egon da kantatzen, zenbat ilara dauzka... laburra delako bertsoari ez zaio meritorik kendu behar.

Sortzeaz gain, itzulpenak ere egiten dituzu.

Itzuli dezente egin dut. Bixikeria bat kontatuko dizuet: Torrealdairen ‘Idazleak gaur’ liburuan jartzen du, Euskal Herrian ni naitzela libururik gehiena itzuli dituen. 400 bat inguru izango ditut itzulita. Elkar argitaletxean lanean hasi

naizenetik haurrentzat asko itzuli dut, oso material laburrak. Ibai, Teo, Txalupa... gaur egun oso gauza laburrak itzultzen jarraitzen dut, Ttartalo saileko ipuin labur-laburrak. Beti saiatu naiz gauza jostariak itzultzen, nire literaturaren estiloko gauzatxoak itzultzen. Oso gustura egiten dut. Liburu lodi samarrak ere itzuli ditut: Rodarirena, Ketxusen zooa... Baina liburu bat itzultzeari beldurra diot, errespeto handia diot. Oso zaila dela iruditzen zait ondo itzultzea.

Umore puntuan ibiltzen zara beraz.

Saiatzen naiz. Umore pixka bat sartzen, sentimentuak ikutuz.

Haurrentzako poesia ere idazten duzu.

Bai, poesia asko eta asko idatzi dut. Poesia liburuak hor dauzkat, baina batez ere testu liburuetan hartu dut parte asko, Urtxintxa eta Txanela proiektuetan. Poema gauza laburra da eta orduz ere ez naiz sobranite ibiltzen, eta zerbaitek ikutzen banau, sentimentu batek edo zerbaitek, poema bat idazten dut. Zirriborrea egin ondoren, landu eta libururen baterako behar denean, aukeraketa bat egiten dut. Poesia asko idazten dut, gustatzen zait.

Haurrei poesia gustatzen al zaie?

Baietz esango dizute. Eskoletara joaten zarenean eta nire lanen bat gustatu zaien galdetuta, baiezkoa esango dute. Nik esaten diet, denei gustatzea ezinezkoa dela. Nik egiten dudan poesia klasea, haur txikientzat da eta normalean dira oso gauza ulerterrezak, gauza sinpleak eta errazak. Beraz, aukera handiak daude, irakasleak pixka bat landuz gero, haurri gustatzeko. Nire poesia gainera da, erritma askorekin, bertsolaritzaren ikutu bat badauka. Adibidez: “Gaua eta eguna, ezin dira inoiz maitemindu.

Bat azaltzen denean, besteak alde egiten du". Uste dut haurrei gustatzen zaiela. Baina gertatzen da, eskola batean, poesiarik aipatu ere ez badute egin, horiei 9-10 urterekin poesia liburu bat sartzea ez dela oso gauza naturala. Txikitatik pixka bat landu badute gusto hori... Gaur egungo metodoe-tan normalean txiki-txikitatik poesiak hor daude...

Saririk irabazi izan al duzu?

Ez naiz sarietako idazlea. Ez naiz sariketetara aurkeztzen. Niretzat nahiko sari da eskola batera joan eta haurrak gustura ikustea nire liburuarekin. Muskizen gertatu zitzaidana kontatuko dizuet, niretzat sari bat baino nahiago dudana sari mota. 8 bat urteko neska batek esan zidan, berari ez zitzaioela irakurtzea gustatzen. "Ez da ezer", erantzun nion. "Ba al dakizu 9 urtera arte eskolan nola egoten nintzen? Leihotik begira. Ez zitzaidan irakurtzea gustatzen, ez zitzaidan eskolarik gustatzen. Eta orain ba al dakizu nire etxea nola dagoen? Ohe azpian ere liburuak daude, liburuz beteta, nik bizitzeko liburuak behar dut. Zu ere agian irakurzaletuko zara, baina lasai... Ni inportantzia kentzen". "Ez baina,eske, zure liburuak gustatu egin zait". Hau da jaso dudana lorerik ederrena. 'Txoko txiki txukuna' liburuak zen.

Irakasle garaia



Beasaingo Alkartasuna Lizeoko ikasle talde bat, Joxan Ormazabal eta Joxe Azurmendi irakasleekin, Urbian. Zutik. Manu Arizkorreta, Joxe Mari Izagirre, Xabier Arizkorreta, Jon Ander Intxausti eta Jokin Izagirre. Pikotxean: Mikel Albisu, Joxe Migel Aldanondo, Juan Mari Altuna eta Andoni Etxeberria.

12 urte zituela Satorrango Seminarioan sartu zen eta geroago Donostia-koan. Baina 17-18 urterekin utzi egin zuen Seminarioa. Magisteritza ikasketak hasi zituen. "Garai hartan lana aurkitzea ere oso erraza zen. Ikastolen Federaziora deitu nuen, titulurik ote neukan galdetu zidaten eta Zarautzen behar zutela bakarren bat esan zidaten. 5 urte egin nituen. Niretzako lehenengo lana izan zen. Ume zalea banintzen baina gela oso batekin aurkitu nintzen. Egokitu egin behar zara. Denak builaka... Irakasle modernoa izan nahi duzu, pedagogia modernoa aplikatu... Lehenengo urtean gainezka egin zidan egoerak baina hurrengo urtean hartu nien trukoa. Handik aurrera oso ondo. Ipuin asko idatzi nituen orduan, publikatuta ez daudenak, baina eguneroko lanerako beharrezkoak. Oroitzapen onak ditu. Baina etxetik urruti ere bai, egunero Zarautza joan behar, Txispas eta biok Goierrira etortzea erabaki genuen, hura Zumaian zebilen. Beasainen aurkitu genuen lana", gogoratu du Ormazabalek.

Zarauztik Beasaina etorri zen, Alkartasuna Lizeora. 4-5 urte egin zituen bertan. "Elkar argitaletxetik proposamena egin zidaten, bi urterako. Eszedentzia hartu eta Elkarra joan nintzen", esan du zegamarrak.

Oroitzapen onak

Irakaskuntzako garaiaz oroitzapen onak ditu Joxan Ormazabalek. "Lanerako ilusio handia zegoen. Giro ona zegoen", gaineratu du.

Inoiz itzultzeko tentaziorik izan ote duen galdetuta, ondorengoa erantzun digu: "Bai, eszedentzia bukatzen ari zitzaidanean. Baina Elkarren jarraitzeko erabakia hartu nuen. Pena edo nostalgia sentitu nuen. Irakasleen oporreatik ere bai. Baina gero eskolaz eskola hasi nintzenean, haurrekin harreman zuzena edukitzea, interesgarria da oso".

Ikasleekin eskolaz kanpoko harremana ere izan zuen. "Zenbait asteburutan, ikasle talde batekin mendira joaten ginen, Joxe Azurmendi eta biok".



zuhaizki

S A

Zurgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurrira.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55

Cuatrovientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa 20491 LEABURU

TOLARE



SAGARDOTEGIA

943 18 01 19 ATAUN



Josetxo Zufiaurre: 'Beasaingo musikak'

*Bi kiloko liburuan
Beasaingo musikaren
eta musikarien historia*

Andre Mari Zeruratuaren Parrokiko organoak 100 urte beteko dituela aitzakia hartuta, azken 200 urteko Beasaingo musikaren eta musikagileen bilduma egin du Josetxo Zufiaurrek, 'Beasaingo Paperak' sailerako. Hasieran uste baino lan mardulagoa atera zaio beasaindarrari: bi kiloko edo ia 500 orriko liburua, argazkiz, dokumentuz eta partituraz osatua.




ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Bi kiloko liburu puska osatu du Josetxo Zufiaurrek, Beasaingo musika gaia hartuta. Azken 220 urte oinarri hartu dituen liburu etno-historikoa egiteko iturri ezberdinak erabili ditu: alde bate-tik, artxiboetan eta etxeetan gordeta dauden agirietatik ateratako datuak, eta beste-tik, herritarren oroimenetik, beretik eta bere herrikideen-etatik, ateratakoak. Beasaingo ia 100 lagunekin hitz egin du. Argazki ugari bildu eta argitaratu ditu liburuan, 236 guztira, guztiak ere musikaren lotutakoak.

Herriko musika mota ezberdinak jaso ditu beasaindarrak: musika erlijiosoarekin hasten da organo-joleei eta elizako koruari arreta berezia eskainiz, musika zibilarekin jarraitzen du gero musika-banda eta abesbatzak aipatuz; musika hezkuntzatik gazteen gozamenarako garatutako musikaraino. Aipamen berezia egin nahi izan die Zufiaurrek, Beasaingo 13 musikagileri.

Beasaindarrak aitortu duenez, uste baino mardulagoa atera zaio liburua. “Orain dela 5 urte, konturatu nintzen, aurten betetzen direla ehun urte Andre Mari Zeruratuaren Parrokiako organoa erosi zela. Udaletxera joan nintzen eta 2006. urterako ‘Beasaingo Paperak’-en bildumarako gairik zeukaten galdetu nien. Ezetz erantzun zidaten. Orduan esan nien, organoa ekarri zela 100 urte betekoa direla aurten eta Beasainen musikak arrakasta handia izan duenez, beharbada zerbait egin beharko litzatekeela. Neronek egiteko esan zidaten. Pentsatzen egon eta hiru edo lau egunera berriz joan nintzen udaletxera eta esan nien, 100 bat orrialdeko liburu baterako materiala izango zela beharbada. Liburu guztiak handiak izan beharrik zela esan zidaten eta horrelaxe hasi nintzen udal artxiboa arakatzen”.

Beasaingo udaletxeko lehenengo akta, 1769koa da. Lau urtean, gaur arteko akta guztiak irakurri ditu Zufiaurrek. “Goizetan artxiboa sartuta egoten nintzen eta arratsaldetan, ordenadorera pasatzen nituen. Beste herri batzuetako artxiboetan ere ibili naiz. Argentinan bizi diren Iguainen familiakoekin ere egon naiz, Eresbilen ere bai...”.

Bitxikeria ugari

Datu, bitxikeria eta istorio ugari bildu ditu Josetxo Zufiaurrek. Adibideetarako, Bandarena ederki kontatu digu: “Bizkaitar maisu bat bazegoen, Agirrezeziaga. Gizon aberats bat ere bai Beasainen: Tirso Olazabal. Beasainen banda militarra zegoen, gerra karlistako garaiaz ari gara. Ejerzitoak hemendik alde egitea erabaki zuen eta hain instrumentu zaharrak zeuzkaten bandakoek, botatzea erabaki zutela eta Beasainen utzi zituzten botata. Maisu horrek, gazte batzuk hartu, solfeoa erakutsi eta instrumentu zahar horiekin, hemengo pieza batzuk jotzen erakutsi zien. Olazabalek hori ikusita, udalari baimena eskatu eta instrumentuak berak ordainduko zituela esan zuen. Hendaiara joan zen, Parisen egiten zituen instrumentuak eta Hendaiak ordezkotzen zuten. Instrumentuak iritsi zirela abisatu zien Hendaiatik. Garai hartan, txarangako edo bandako instrumentu gehienak metalzkoak izaten ziren. Muga pasatzeko aduana pasatu behar zela eta, Olazabalek esan die mutilei halako egunetan, ahal zuten dotorena, geltokira etortzeko. Trena hartu eta Hendaiara joan ziren. Entsaio pare bat egin, zuzendaria aurrean jarri eta jotzen hasi ziren. Aduana pasatu eta Frantziako talderen bat Iruna zoazen ustetan arazorik gabe aurrera egin, Irunen trena hartu eta Beasaina etorri zi-



ren. 14 mutil haiek nortzuk ziren aurkitu ditut”, zehaztu du.

Beasaingo musikagileak

13 musikagile bildu ditu Josetxo Zufiaurrek liburuan. “Orain arte bilatu ditudanak, 13 dira. Bakoitzaren bina partitura jarri ditut liburuaren bukaeran. Telleriarena, 1894ko partitura jarri dut, Parisen egina, bere maisu Gorritiri eskainia”.

Eresbilen, Musikaren Euskal Artxiboan ere izan da Zufiaurre. “Harreman handia izan dut. Beraiek materiala eman didate eta nik eraman ere bai. Liburuaren hitzaurrea, Jon Bagües, Eresbileko zuzendariak egina du”.

Eresbilen eman zioten Mercedes Boyerren berri. “Arotz baten alaba zen. 7 urte zituela Donostiara joan

ziren bizitzera, administratza ikasketak egin zituen eta bitartean, Maria Teresa Hernandezekin (Maitea abesbatza sortu eta zuzendu zuena), solfeoa eta abesten ikasi zuen. 21-22 urterekin, moja sartu zen, Donostiako dominikarretan. Hango mojekin berehala hasi zen abesbatza bat antolatzen. Klausurako mojak dira dominikarrak eta egunean 5 aldiz errezoak egiten dituzte. Egutero, errezo ezberdinak egiten zituzten. Pentsa, 365 egunetan egunean bost aldiz... Ama Nagusiak neska honen musikarako balioa ikusi eta Urteaga organista ordiziarrari deitu zion, konposatzen erakusteko. Bi mila eta gehiago dira. Errezo guztiak musikalizatu zituen beasaindarrak. Bi meza, salbea, abe maria eta ofizio osoa... Partiturak es-



Atalez atal

Liburuaren aurkezpenaren hitzaurrearen eta sarreraren ondotik, ondorengo atal hauek daude liburuan: Organo-joleak, Elizako korua, Beasaingo Musika Banda, Musika Eskola Publikoa, Beasaingo Txistularien Banda, Loinatz Korala (1939-1979), Loinatz Abesbatza (1986-2006), Beste jotzaile batzuk eta taldeak, Beasaingo Musikagileak eta Eranskinak.

Organoa: Beasainen lehenengo organoa 1783an Oñatiko Domingo Garagaltza organo-maisuak egin zuen. Lehenengo organo-jolea, Pedro Ignacio Berridi izan zen. Bigarren organoa, Paristik ekarri zuten, 1906an. Beasaingo Organo-joleen zerrenda osatu du Zufiaurrek.

Elizako korua: “Andre Mariaren Parrokian Organo-jole kargua sortu ondorengo lehen urteetatik, Organo-jolearen lan edo zereginetako bat, gero koruan abestu ahal izateko gazteak solfeoa prestatzea dela azaltzen da. Areago oraindik, Akta batzuetan ikusi ere egin dugu, Organo-jolea bera zela bere ordainsaritik kopuru batzuek koruko abeslari finkoei ordaindu behar zizkiena”, dio liburuan Zufiaurrek. 1940tik aurrera behintzat, Lasalletar Anaiek beren ikasleekin osatutako tiple-talde bat izan ohi zuten, eta igandee-tako meza nagusietan, herriarekin txandatu, ‘Aingeru-meza’ abesten zuten koruan. Gero, handik osatu zen gehienbat, Loinatz koralaren tiple-taldea.

Beasaingo Udalarren Musika-banda: 1865. urteko lehen egunetan Beasaingo lehenengo Musika Banda osatu zuten 13 gazteak ondorengoak dira: Antonio M. Agirrezeziaga (zuzendaria), Jose Antonio Agirrebarrena, Jose Maria Aranburu, Jose Maria Arteaga, Joakin Aiestaran, Pablo Txintxurreta, Ignazio Eleizegi, Santiago Elizegi, Joakin Murgertza, Adrian Vazelu, Joan Ignazio Zabalo, Joan Victor Zabalo, Frantzisko Zulaika eta Fermin Zuntzunegi.

Musika Eskola Publikoa: 1785. urtean sortu zen Musika akademia. “Beasaingo agintari zibil eta elizakoek gazteriak musika-hezkuntza jasotzeko zuten kezka duela 220 urtetik datorrena da eta Musika-akademia sortu zuen”, dio beasaindarrak liburuan.

Beasaingo Udal Txistulari Banda: Beasaingo Udaletxeko artxiboan Osoko Bilkuren aktetan eta bestelakoetan txistuaz aurkitu duen agiririk zaharrena 1657ko abuztuaren 10ekoa da. “Hain zuzen ere Migel Musikakok Ataungo danbolinteroak emandako ahalmena da, Beasainen jotzeagatik bere soldata kobratu ahal izateko”, irakur daiteke liburuan. Joan Viktor Zabalo, zapataria, Beasainen 1850ean jaioa, 1865. urte aldera hasi zen herriko txistulari lanetan. Atabalari lana berriz, bere anaia Joan Ignaziok egiten zuen. Pixkanaka txistulari eta danbolintero taldea osatzen joan zen.

Loinatz korala: 1939. urtean sortu zuen garai hartan Elizako Organo-jole eta Udalarren Musika bandako zuzendari zen Pedro Jose Iguainek. 1979ra arte iraun zuen.

Loinatz abesbatza: Loinatz abesbatza da Loinatz Korala berriak zortzi urte jardun gabe igaro ondoren hartu zuen izena. Joan Alkaiagak Loinatz Koralarren Elkarteko lehendakariak, abesbatza osatzeko gogoak zuen eta 1985ean Olentzerorekin irteteko entseguak egitera bildu ziren koruko gazteei bere kezka adierazi zien. 1986an, Xabier Sarasola beasaindarrak hartu zuen abesbatzaren zuzendaritza.

Beste musika-jole eta musika-talde batzuk: Zelestino Aranburu, Arantxa Esnaola, Joan Jose Iturriotz, Koldo eta Arantxa, Usurbe laukotea, Usurbe Zortzikotea, Loinatz Errondaila, Simbas taldea, Urki taldea, Kea, Burbuil, Koskola txaranga, JZK, Erretiratuen abesbatza, Continuo Renacer, De Espurium, The Gura, Dogma de Fe, Sin Red, Sukan eta, Brighanthy taldeak aipatzen dira atal honetan.

kuz egindakoak dira eta sekula ez zuen Sor Mercedes bezala izenpetzen, DMMSS bezala baizik, hau da, Donostiako Ama Dominikarrak. Duela zortzi bat urte hil zenean, mojek ofizioa dena argitaratu egin zuten. 7 liburu dira. Erdarazko kantutak dira eta erdaraz Hego Amerikan egiten den lekutara ere bidali zuten”.

Musikagileetan emakume bakarra izan da Mercedes Boyer. “Baina horrek ez du esan nahi Beasainen musika emakumeek ikasten ez zutenik”. Argentinatik Iguainen alabak, argazki zoragarri bat bidali dit, Beasaingo Musika Eskolakoa, 1929. urtekoa, 34 mutil eta 17 neska daude. Herena, Musika Eskolan, neskak ziren. Hori ez da normala, 1929an. Aurrerapen sozial ikaragarria iruditzen zait”, uste du Zufiaurrek.

Iguaindarraren materiala

Argazki asko bidali dizkidate Argentinatik Iguaindarraren. “Iguaindarrak bidalitako argazkietatik jakin izan du, Euskal Herriko udal bandetako zuzendarien bilerak egiten zirela. “Horrela 5-6 argazki bidali zizkidan Iguainen alabak, urte ezberdinetakoak. Jon Bagüesi Euskal Herriko banden elkartearen noiz sortu zen galdetzeko deitu nion. Euskal Herriko elkarterik ez zela existitu esan zidan, Espainiakoa zela. Sei argazkiak erakutsi nizkion eta Eresbillekoek izan zenik ere ez zekiten. Madrilen izan zen Espainia guztiko elkartearen bilera eta Euskal Herriko ordezkari Pedro Jose Iguain joan zen. 1936. urtean, bileran hau Beasainen egin zuten baina orduko argazkirik ez daukate”.

Beasaingo doinuak

Liburuaren bukaeran, Beasainen abesten diren hainbat kantu ere bildu ditu beasaindarrak: Loinatzar Martin Iguainena; Juan Jose Te-

Musikari

**dagokionez, herri
aberatsa izan da
Beasain, "nik uste
baino askoz ere
gehiago"**

lleriaren Martxa bat, bera hilez zenetik, ez da sekula jo. Xabier Sarasolari partitura pasatu diot, ikasi du jotzen eta grabatu egin diot eta liburuaren aurkezpenen entzungo da; Novena San Isidro... "Orain dela 150 urte CAF eta RENFE egin baino lehen, baserritarak bizi ziren eta kalean 20 etxe egongo ziren. Urte guztian jairik garrantzitsuenetarikoa San Isidro eguna zen, baserritarren eguna. San Martin, Santa Agedarekin batera, eta Loinazko jaiak. San Isidro egunerako bi martxa zeuden Beasainen, Martin Rodriguezena bildu dut nik"; Gabonetan, 1915. urte inguruan gehientxoena abesten zena, abesten zen gabonetako abestia; Xabier Sarasolaren Salbea eta Mari...

Herri aberatsa

Musikari dagokionez, herri aberatsa izan da Beasain, "nik uste baino askoz ere gehiago", aitortu du Josetxo Zufiaurrek. "Pentsa 100 orrialde betetzeko adina material izango nuela uste nuen hasieran eta ia 500 bete ditut, 449 zehazki".

Luzea bai, baina irakurtzeko erraza omen da liburua, "baina aldi berean dendena irakurriz gero, zail samarra ere izan liteke, aktak eta dokumentuak ere jarri baititut. Dokumentuen %15-a ere ez dut jarri baina garrantzitsuenak jarri egin ditut". Beraz, atalka irakurtzea gomendatzen du Josetxo Zufiaurrek.

Beasaingo musikagileak

Juan Jose Telleria Aiesta: Astigarretako semea. 1857ko uztailearen 14an jaio zen. Gaztetan, Madrilen aritu zen ikasten eta musika-ikasketak, bere maisu Felipe Gorritirekin osatu zituen. 37 urterekin hil zen.

Esteban Lasa Aranburu: 1874ko irailaren 2an jaio zen. Umetan oinarritzko ikasketak egiteaz gainera, musika ere ikasi zuen eta parrokiako koruko triplekantarietakoia izan zen. Hori guztia, Joan Jose Telleria Organo-jole eta Bandako zuzendaria irakasle zuela. 1895ean, 21 urte zituela, Organo-jole moduan ziharduen Altsasun. Apaiz ikasketak egin zituen. Donostiako San Bizente eta Santa Maria parrokiakiko Organo-jole izan zen.

Vicente Telleria Aiestaran: 1881eko irailaren 12an jaio zen. Aurreko Organo-jole eta Banda-zuzendariak bere kargua utzi zuela jakin zuenean, bi plaza haiek egoki betetzeko ongi prestatuta zegoela uste izanik, eskutitz bana idatzi zien Erretoreari eta Alkateari plaza haiek eskatzuz.



Ignacio Bereziartua Uranga: 1883ko abuztuaren 1ean jaio zen. zerbaki-dun etxean. Beasaingo parrokian egin zituen lehenengo musika ikasketak. Donostiako Kortserbatorioan goi mailako ikasketak egin zituen. Elgoibarko organo-jole eta banda-zuzen-

dari plazak atera zituen, 19 urte zituenean.



Ricardo Amiano Garmendia: 1895ean jaio zen. Lehen mailako ikasketak egin zituen bitartean, musika ere ikasi zuen eta parrokiako triple-eskolanian parte hartu zuten. Hamar urterekin, Eskorialeko San Lorentzoko Errege ikastetxean sartu zen.

Pedro Jose Iguain Telleria: Alegian jaio zen 1896an. Organo-jole legez, Altzon jardun zuen eta 1913az geroztik Ataungo organo-titular izan zen. 28 urterekin lehiatu zen Beasaingo Organo-jole eta Musika-bandako Zuzendari izateko eta lehia irabazi egin zuen 1924an. Organo-jole izateaz gainera, musika-kulturaren benetako motorra izan zen Beasainen hogeita bost urtetan zehar.

Ramon Aranburu Iriazar: 1902an jaio zen eta Beasainen txistularitzan izan den musika-familiarik garrantzitsueneko senide zaharrena zen. Bere gainerako senideek bezalaxe, Ramonek, ume-umetatik eta bera aitaren eskutik ikasi zituen, bai musika eta baita txistua jotzen ere.

Mercedes Boyer Garcia: 1911n jaio zen. 23 urterekin, erlijio-bokazioa sentitu eta Donostian Ama Domingotarren monasterioan sartu zen. Komunitateko Abeslari eta Koruko Zuzendaria izendatu zuten.

Ramon Modesto Aranburu Aranburu: 1916ko apirilaren 8an jaio zen. Gazte-gaztetatik izan zen Beasaingo Udalaren Txistulari-banadako partaidea eta 18 urterekin jada nabarmena zen txistua jotzen zuen trebetasuna.

Nikomedes Iguain Azurza: 1927ko maiatzaren 27an jaio zen. 1949an bere familia Argentinara joan zen, eta bera bi urte beranduago joan zen, soldadutza bukatu ondoren. Buenos Airesa helduta, gustukoen zituen bi jardueretan aritu zen: euskal kulturaren sustapena eta musika lantzea.

Gurutz Iguain Azurza: 1932ko apirilaren 22an jaio zen. Donostiako Udalaren Musika Kontserbatorioan, musika eta piano ikasketak egin zituen.



Xabier Sarasola Lasa: 1960ko urtarrilaren 23an jaio zen. 12 urtetik aurrera txistulari izan ondoren, 19 urterekin Kontserbatorioko musika-ikasketak hasi zituen, eta gero, biolineko eta pianoko irakasle-tituluak lortu.

Pello Irizar Aranburu: 1958ko ekainaren 26an jaioa. Sei urterekin hasi zen solfeoa eta txistua jotzen ikasten Ramon Modesto Aranburu 'Txanbo' txistulariarekin eta berehala ekin zion 'Txistulari Txikien' taldean kalejiratan parte hartzen.



Alberto Eskisabel, setter ingeles hazlea:

"Oso zaila da txakurra oso ona izatea, emaitza onak lortzea eta gainera kume onak izatea"

Ataundarra jaiotzez, haurtzaroa eta gaztaroa Donostia, Lazkao eta Beasain artean pasa ondoren, Donostian bizi da gaur egun Alberto Eskisabel. Ataunen duten Arteta etxera egunero etortzen da, bertan baitu setter ingeles arrazako txakur haztegia. Artetako Sultan da orain arte emaitzarik onenak lortu dituen txakurra, izenak dioen bezala, Ataungo Artetan jaio eta hazia.


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnaola 8
Tel 943 721 078
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O
I



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Artetako Sultan da zure txakurra. Erraza izaten al da izena aukeratzea?

Egia esanez gero ez. Txakurak kanpoan asko ibiltzen direnez, bai zuretzat eta bai kanpoko batentzat erraza izango den izena bilatzen saiatzen gara. Hori dela eta, normalean, erderazko izenak jartzen dizkiegu. Arteta, berriz, gure etxearen izena da. Txakur guztiek izaten dute beraien izena eta afijo bat. Afijoak txakur arrazen erregistroan alta emanda egon behar du. Hori, nola-bait esateko, txakurraren abizena da, txakurraren pedigree-a ikustean bere jatorria zein den jakiteko izaten da. Zein lineetatik datorren ikusten da eta linea bakoi-tzak zein ezaugarri izan ditzakeen ere bai. Afijo hori oso garrantzitsua da.

Zein ezaugarri ditu Artetako Sultanek?

Apirilean egin zituen 5 urte. Etxean jaio eta hazitako txakur arra da. Ez du klase bikaina, ez da estilista purua, baina nahiko estilo ona dauka. Beti daukan guztia ematen duen txakurra da, bihotz handikoa. Hogei minutuko lan batean daukan guztia ematen du eta hustuta itzultzen da. Beti ehiza bilatzen du, oso saiaturia da. Azken batean oso ehiztaria da, ehiza oso ondo tratatzen du, oso distantzia onean jartzen da, eperrak ondo ezagutzen ditu.

Beraz, ezaugarri bereziak behar ditu txakurrak.

Lehiaketetako txakur batek ezaugarri guztiak izan behar ditu: arrazaren bereizgarri estandarrak, neurriak, itxura, korrika egiteko eta ehizerako estilo jakin bat behar dute... Hori dena lortzea oso zaila da, txakur onak oso gutxi ateratzen dira, estilo ona daukanak ehizarako mentalitaterik ez du eta ehizan ona denak estilorik ez du. Oso zaila da dena duen txakurra lortzea.

Beste kontu bat da, txapelketetako txakur on as-



kok ez diela kumeei ezer transmititzen. Beste batzuk berriz hain onak ez izan arren oso kume onak izaten dituzte. Oso zaila da txakurra oso ona izatea, emaitza onak lortzea eta gainera kume onak izatea.

Zenbat urtetan ibiltzen da txakur bat lehiaketetan?

Txakur bat ondo zainduta baldin badago eta ondo erabiltzen bada, txapelketetan 6-7 urte dituen arte aritu daiteke. Hortik aurrera fisikoki asko galtzen dute. Txapelketan, maila altuan, nahiko bizitza motza izaten dute.

Hemendik bi urterako, ordezkariarik ari al zara bilatzen?

Ni honetan hasi nintzenetik gauza bat izan dut garbi, txapelketetan txakur bat eduki behar badut, nire etxetik aterako dela eta orain Sultan daukat. Andaluzian emaitza onak lortu dituen eme bat ere badaukat. Sultanen amak iaz izan zuen kumaldi batetik atera da ona dirudien txakur bat, oraindik urte bete du eta tentuz esan beharreko gauzak dira, baina, nik uste dut ona datorrela. Azken finean bizidunak dira eta aldaketa handiak jasaten dituzte.

Noiz antzematen diozue txakur bati ona den ala ez?

Txakurrari txikitatik ikusi ahal zaio zein ezaugarri izan ditzakeen, izakera gogorra duen ala ez... Baina ehizan hasi arte ezinezkoa da benetan balio duen jakitea. Txakurra 10-11 hilabete izan arte ez dugu ehizara eramaten. Batzuk etxean mundua jan behar dutela dirudite eta ehizara eramandakoan ez dute ezer egiten. Beste batzuk berriz, etxean ez dute ezer berezirik erakusten eta ehizara eramandakoan barruan ezkutan zeramaten zerbait pizten zaie eta erabat aldatzen dira.

Inoiz pentsatu duzu, txakurrak prestatzen has-tea?

Ez, hemen gertu ez dugu lurralde egokirik, txakurrak prestatu eta profesionalki horretara dedikatzeko. 600 kilometro egin beharra daukagu txakurra askatzeko. Horrez gain, mundu honek oraingoz ez du ematen hortaz bizitzeko adina. Badaude profesionalak, baina adibidez nik darabildana Toledon bizi da eta Espainia guztiko txakurrak hartzen ditu, ez lehiaketetarako bakarrik, ehizarako ere prestatzen ditu. Espainian horrela-

ko doenerdi bat egongo dira.

Frantzia eta Italian tradizio gehiago dago eta profesionalak ere gehiago dira. Italian badira 90 urte txakur lehiaketak antolatzen eta txakur aukeraketak egiten hasi zirela. Espainian lehen txakur lehiaketa Urnietan izan zen duela 30 bat urte. Pentsa oraindik nola gauden, bide asko dago egiteko.

Gailurrera iristeko ordu asko sartu beharko dira.

Bai, nik ez dut txakurra prestatzen, ez dut ez horretarako denborarik, ez eta inguruan ehizan ariko leku egokirik ere. Azkenean, lehiaketak irabaziko dituen txakur bat nahi baduzu prestatzeile profesional bati eraman behar diozu eta berak aurkezten du txapelketetan. Toledoko Cesar Villamiel da txakurraren prestatzailea.

Hala ere denbora asko eskaini behar zaio. txakurak egunero jaten dute, jai eta aste. Asko ibili behar dira, mendira asko atera behar dira, fisikoki ondo egon behar dira, ondo gihartuta... Elikadura ere egokia eraman behar dute. Nik pentsua ematen diet, beraien jarduerarako pentsu egokia.

Lehiaketak

Setter ingeles txakur arrazarekin ibiltzen da Alberto Eskisabel eperren ehiza lehiaketetan. Bi txapelketa mota dauke, udaberriko probak eta udazkenekoak edo ehiza praktikoa. Udaberrikoak Andaluzian, Frantzian, Italian, Serbian... egiten dira. Toki zabalak eta lauak izaten dira, gari berdea eta nahiko ehiza dagoena. Proba horietan epai-leak zorrotz begiratzen diote txakurraren estiloari. Txakurraren ibiltzeko modua asko hartzen da kontutan, oso ibilbide perfektua egitea eskatzen zaio, lursaila ondo miaztea eta, noski, ehiza ekartzea. Ehiza jartzen ez duen txakurra ez da inoiz sailkatzen, nahiz eta oso ondo lan egin.

Bi modalitatetan egiten dira udaberriko probak: ehiza bilatzea eta bilatze handia. Albertok azaldu digu bien arteko desberdintasuna: "Bilatze handi hori da proba gorena, txakurrak izugarrizko mentalitatea behar du, alde bakoitzera 300 metro joan litezke, abiatutakoa baino 20-30 metro aurrerago itzultzen dia gidariarengana eta berriro 300 metro joaten dira beste aldera. 500-600 metro zabalerako lur eremua miazten dute. Ehiza bilatzeko modalitatean eremu txikiagoa hartzen dute txakurrek, ez daukate hainbeste mentalitate".

Udazkeneko probak ehiza praktikokoak izaten dira. Hor estiloa neurtzen da, baina garrantzi gehiago du txakurrak ehiza ekartzeko duen gaitasunak. Lur eremua ondo begiratzea, begiratu gabeko hutsunerik ez uztea, ehiza egon litekeen bazterrak ondo miaztea, azken batean ehiztari onak izatea asko baloratzen da.

Artetako Sultanek aurten udabarriko ehiza bilaketan Espainiako Txapelketa irabazi eta Europako txapelketarako aukeratu zuten. "Estilo handiko txakurra ez izan arren badu txapelketa irabazteko adina estilo", dio Sultanen jabeak. Ehiza praktikoa ere Espainiako txapelketa irabazi du. Lehiaketa batetan txakur bati eman daitekeen



puntuaketaarik altuenarekin (RCACIT) irabazi zituen bi txapelketak. Horren ondoren ehiza praktikoko munduko txapelketarako ere aukeratu zuten. Italian jokaturako munduko txapelketan Andoaingo Joxan Rekondoren Adarmendiko Rex-ek irabazi zuen eta taldeka Espainiak lortu zuen, aspaldian irabazi ez zuen mundu mailako garaikurra. Bigarren lehiaketa egunean Artetako Sultanek 2. postua lortu zuen Italian.

Aurreko asteburuan Espainiako koparekin bukatu zen aurtengo denboraldia. Larunbatean Toledora joan eta igandean txakurra etxera ekarri zuen Alberto Eskisabelek. "Hemen edukiko dut eguberriak arte eta urte hasieran berri ere eramango dut Toledo aldera, udaberriko Andaluziako probak prestatzen hastera. Nik uste dut udaberrian emaitza onak lortuko dituela. Txakurra oraintxe dago bere momenturik onenean, fisikoki eta batez ere psikologikoki. Orain urte pare bat geratzen zaio sasoi onen hori aprobeztatzeko".

Gu behin apirila-maiatzaz geroztik, Burgosa joaten gara asko, normalean ostegunero, txakurrak ibili daitezten. Gainera Donostian bizi naiz eta txakurrak Ataunen ditut. Beraz, urtean kilometro mordo bat egiten ditut txakurrak direla eta.

Zein desberdintasun dauka ehiza-txakur arruntaren eta lehiaketetakoaren artean?

Azken finean lehiaketetan dabiltzanak ere ehiza-txakurrak dira. Ehizik egiten ez badute ez dute ezertarako balio. Lehiaketetakoek zer daukate gehiago? Estiloa, klasea eta mentalitatea, neurritz kanpoko mentalitatea. Txakur bat 300 metro alde bakoitzera joan eta itzultzeko, ehiza jartzeko, zu etorri arte geldi egoteko, ehiza altxatu eta agindu arte

zain egoteko eta detonadore batekin tiro egin ondoren alde egin duen eperraren bila joan beharrean beste baten bila joateko, oso argia izan behar da. Oso txakur bereziak dira, berezkoa asko behar dute eta hortik aurrera lan asko egin behar dute, eguneroko lan handia. Txakur asko disziplina horrekin behera etortzen dira. Baina ehiza-txakurrak dira eta nik nire txakurrekin egiten dut ehiza.

Txakurrak bereizten al du naiz ari den txapelketan eta noiz ehizan?

Bai. Ehizara joaten denean txakurrak ez du epailerik ikusten, ez ditu beste 30 furgoneta ikusten inguruan. Ehizan eskopetarekin ikusten zaitu eta gainera txakurra askatzeko modua ez da berdina. Txapelketa batean

tentsio gehiagorekin askatzen da txakurra. Trebakuntzaz ahazten da, ehiza ekarri egiten du. Txakurrak behar du urteko disziplina hori ahaztea. Askok esaten dute lehiaketetako txakurrek ez dutela ehizatu behar, bizioak hartzen dituztela. Baina niri gustatzen zait, txapelketak bukatzen direnean txakurrek ehizatzea, beraien instintoa lantzen dute, ehiza hozkatzen dute eta hori oso garrantzitsua da, asko erlaxatzen dira. Lehiaketako txakur bat ez nuke 7 orduz ehizan erabiliko, baina ordu t'erdiz edo bi orduz bai.

Sultan Toledon duzu hezitzailearekin. Beste txakurrak hezitzeko nola moldatzen zara?

Batez ere orain ehiza garaian asteburuetan Toledora joaten naiz, urte beteko txakur

kurak balio duten ala ez ikusteko. Niri onak iruditzen zaizkidanak Toledora bidaltzen ditut Cesar Villamielek udaberriko probetarako prestatu ditzan. Besteak ehizarako uzten ditut edo kendu egiten ditut.

Sariak jabearentzat edo prestatzailearentzat izaten dira?

Hor ez dago saririk. Garai-kur bat soilik ematen dute. Hori baino garrantzitsuagoa da txakur bakoitzak izaten duen laneko liburuxka. Hor apuntatzen dira lortu dituen emaitza guztiak, zein epai-lek eman duen puntuaketa eta epaileen sinadurak. Azken finean, txapelketen helburua arraza hobetzea da. Txapelketetan arraza bakoitzeko txakur adierazgarrienek parte hartzen dute eta horiek erabiltzen dira hu-

rrengo belaundaldiak atera eta geroz eta txakur hobeak izateko, bai ehizarako, baita lehiaketetarako ere.

Txapelketa bat irabazteak ez du esan nahi txakurrik onena denik, zorteak ere zer ikusia izan baitezake. Horregatik txakur bat ona den begiratzeko lehen esan dugun liburuxka hori begiratu behar da, zein txapelketetan parte hartu duen eta zer nolako emaitzak lortu dituen.

Txakurrak saltzen al dituzue?


Bai, lehiaketetan erabiltzen ez ditugunak ehiztariei saltzen dizkiegu. Oraindik jendea ez da asko fijatzen lehiaketetako txakurretan, nahiz eta geroz eta kontzientzia gehiago dagoen. Nik Sultan orain arte txakur batekin bakarrik gurutzatu dut, galiziar batekin, oraingoz besterik ez da inguratu.

Beraz, ez dago txakur onak erosteko edo gurutzatzeko ohitura hori.

Euskal Herrian geroz eta gehiago dago. Zergatik? Bada, geroz eta ehiza gutxiago dagoelako. Orduan, geroz eta txakur hobeak behar da. Lehen, adibidez, oilagor gehiago zegoen, edozein txakurrekin ehiza egiten zen. Orain geroz eta oilagor gutxiago dago eta ehiztari gehiago. Orain askoz ere terreno gehiago pasako duen txakurra behar da, ez lehen bezala ehiztariaren inguruan ibiliko dena.

15 urte ehiza-txakur artean

Alberto Eskisabeli txakurrak beti gustatu izan zaizkio, txikitatik, baina etxean ez zuten inoiz ehiza-txakurrik izan. “Duela 14-15 urte lagun batekin, Xabier Irastorzarekin, Palentziara joan ginen ehizara. Berak pointer bat zuen eta hantxe sartu zitzaidan harra. Gainera ni zerbaitetan sartzen banaiz, bukaera arte eraman beharra dut”. Lehenengo 6 hilabeteko txakurra erosi zion txapelketetan ibiltzen zen Jose Luis Perez donostiarrari. Harrekin txapelketak ikustera joaten hasi eta konturatzerako mundu horretan sartuta zegoen. “Garai hartan uste genuen etxean txakur onak genituela eta gero italiarrak eta ikustean konturatu ginen zein txarrak ziren gureak. Horrela Italiako setter ingeles adar batekin hasi nintzen lanean. Jende asko ezagutu dut, kilometro mordo bat egin ditut...”



Eskisabelek azpimarratzen duenez, txakurrak hazteko bi gauza izan behar dira garbi: “zer nahi den eta nola lortu nahi den. Esatea erraza bada ere, oso luze joaten da dena. Txakur bat uste duzu ona dela baina, beti zerbaitetan huts egiten du, hurrengo belaunaldian huts hori zuzentzen saiatzen zara eta oso luze joaten da nahi duzuna lortzea. Azken finean genetika ez da matematika eta proba asko egin behar da. Umeekin bezala da, disgusto eta poz asko hartzen dituzu bidean”.

Setterraren aldeko apustua

Lehen ehiza-txakur hura pointer arrazakoa izan zuen Albertok, oilagorretan trebea zen gainera, hala ere setterraren aldeko apustua egin zuen. “Gehiago gustatzen zait animali bezala, ibiltzeko era... Eta beste alde batetik, behin mendian nengola elurra hasi eta pointer hanka artera etorri zen dardarka, nahiz eta oso txakur ona izan, hantxe erabaki nuen bukatu zela”.

ainarsetxeberria

HANKARA

podologia zentroa

Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

X

Jabekideen komunitatea osatzea

X

Komunitateen kontabilitatea

X

Akten idazketa

X

Aurrekontuen eskaera

X

Aholkularitza legala

X

24 orduko asistentzia

X

e.a.

AUZOKI

Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486



Garai bateko Arama

*Arkaitz Arruabarrenak
'Arama. Apunte
historiko eta
etnografikoak liburua
idatzi du*

Garai bateko belaunaldia desagertzen ari dela eta, Araman, beharrezkoa iruditu zaie, garai hartako bizimodua, ohiturak eta bizipenak jasotzea. Baserri giroko gizartetik industri girokora iragan zen garaia bildu du Arkaitz Arruabarrena historialariak liburuan, Arama herriaren historiarekin batera.

LEIAR **LEIAR** **KRISTALDEGIA**
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Goierritarra
943 16 00 56 goierritarra@goierrikohitza.info



kutxa

Arkaitz Arruabarrena Goikoetxea beasaindar historialariak idatzi du 'Arama. Apunte historiko eta etnografikoak' liburua. Bi zati nagusitan banatzen da liburua. Lehenengo zatian, Aramako historia aztertu du historialariak, batez ere azken mendeetako garaia. Artxiboak eta liburuak arakatu, hainbat datu bildu ditu beasaindarrak. "Gure helburua, dena den, ez da izan herriko historia sakonki aztertzea aztertzea. Urteetako lana beharko genuke horretarako. Gure lanak, Aramako historiako zenbait atal lantzea beste helbururik ez du izan".

Liburuaren bigarren zatian, Aramako garai bateko bizitza aztertu ditu idazleak, besteak beste, jendearen testigantzak eta pasarteak plazaratuz. "Izan ere, garai bateko belaunaldia desagertzen ari denean, behar-beharrezkoa iruditu zaigu garai hartako bizimodua, ohiturak eta bizipenak jasotzea. Adineko pertsona bat hiltzea, enziklopedia edo liburutegi oso bat galtzearen parekoa baita", dio Arruabarrenak. Atal honetan, Aramako garai bateko ohiturak eta bizimoduaren lekukotasun eta testigantza zuzenak jaso ditu herriko hainbat lagunei esker. Jaurerri baserriko Joxe Mujika, Mendizabal baserriko Gregori Galarraga, Iriarte baserriko Pako Etxeberría, Itur-



rriortz baserriko Felipe Arizmendi, Ibaresko erroto Mikel Irizar eta herriko jubilatutaldea, Aramako baserriak, otorduak eta edariak, eguraldia eta herri-sinisteak, baserriko lanak, beste lanbide batzuk, jaiotza eta bataioa, haurtzarora eta gaztarora, ezkontza eta ezteiak,

heriotza eta hiletak, auzolana, udala eta herria, erlijioa, ospakizun bereziak, osasuna, Enirio-Aralar eta beste hainbat konturi buruz esandakoak bildu ditu liburuan.

Liburuaren amaieran, ondorioak ere atera ditu historialariak. Honela dio. "Duela berrogeita hamar ur-

te Aramako herritarren bizimodua goitik behera aldatzen hasi zen. XX. mendearen erdialdera Goierrin erabateko indarra hartu zuen industriagintzak, eta horrekin batera hasi ziren aldaketak. Aldaketa hauek, baserri-munduaren akabera ekarri zuten, eta bide batez, Aramako herria baserri-giroko gizartetik industri girokorara iragan zen. Urte horietako aldaketak Araman aurreko bostehun urteetakoak baino askoz garrantzitsuagoak eta biziagoak izan ziren, ia guztia aldatu baitzen: ohiturak, lan-moduak, sinismenak...".

Aldaketak onerako izan ote diren galdetu die aramar helduenei. Jubilatutaldekoei ondorengo erantzun dute: "Orduko bizimodutik gaur egungo bizimodura alde edo diferentzia handia dago. Bizimodua asko aldatu da. Garai batean ez zegoen ezer, ez zen ezer ikusten, ez janaririk, ez dirurik eta konformatu egin behar. Eta zegoenarekin ondo pasatzen genuen. Lagunarte hobe, gainera. Gaurko gazteek, berriz, dena daukate, eta hala ere ez dira konforme, jeneralean. Gaur egun konformitateirik ez dago. Ez guk garai batean geneukan konformitateirik".

Liburuaren adibide bezala, Aramako jaien inguruko oroitzapenak bildu ditugu hurrengo orrian.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

biok

kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierrri, 12

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Garai bateko Aramako festak

Zaindariaren jaietan, San Martinetan, udalak herriko festak eragindako gastuak ere ordaindu behar izaten zituen: festak alaitzen zituzten soinu-joleak, danborilerok edo txistulariak, suziriak, meza nagusia eta herritarrentzako debalde emandako ardoa eta gaztainerreak. Aizkora-apustu eta horrelakorik ez zen izaten, dirurik ez baitzegoen.

“... se acordó que al igual que los años anteriores se encargue para amenizar a la banda de txistularis de Legorreta (Alegiko Ricardo Insausti ‘Txintxarriren’ zuzendaritzapean), que se traigan cohetes tal se acostumbra en años anteriores, que se levante al Ayuntamiento un pellejo pequeño de vino de unos 3 o 4 arrobas y que el Ayuntamiento asista a las fiestas religiosas en corporación” (Iturria: Aramako Udal Artxiboa, 1930—11-03).

“Festetan, San Martin bezperan, bezperak izaten ziren elizan. Haruntza joan eta handik atera eta herriak jarritako gaztainerreak eta garrafoi bat ardo, hogeitak litrokoa, izaten genuen aiuntamentu zaharraren azpian. Eta haiek jan ez eta ardoa edanez, kontutan egoten ginen.

Ni alkate nengoela, urte batean edo, gaztainarik gabeko urtea izan eta gaztaina jaterik ez zen izan. Orduan gaztainen ordeztu gailetak jarri genituen. Baina bestela beti ezagutu dut nik gaztaina jatea. Lehen lehenago ez dakit izango zen.

Meza nagusiaren ondoren ere herriak hamaiketakoa jartzen zuen, ogia eta ardoa” (Iturria: Joxe).

“Gu gazteak ginenean herri afaririk ez zen egiten, eta bertsolaririk ere ez zen ekartzen. Bertsolariak gero-



xeago hasi ziren, dirua pixka bat hasi zenean, bitartean ez. Eta Araman bertsoak hasi ziren garaian, ekartzen zutenetako bat, nire koinatua, Barandiaran, Urkiakoa.

Orain presupuestoa lantza daukate festak gure garaiko aldean” (Iturria: Joxe).

“Veinticuatro reales puestos en el gasto y salario de los músicos del día de San Martín.

Veintitrés reales. Importe de los vinos que se gastaron dicho día de San Martín con los vecinos de la circunferencia al tiempo de las danzas como es costumbre” (Iturria: Aramako Udal Artxiboa, 1762)

“El Sr. Presidente hizo presente que como era costumbre se traigan 50 litros de vino para las fiestas de San Martín con objeto de repartir a la gente que acude a dichas fiestas y que se traigan también tres docenas de cohetes, todo ello a cargo de los fondos municipales” (Iturria: Aramako Udal Artxiboa, 1912-11-02).

“Así mismo se acordó que para el sermón del día de San Martín patrón de la villa se designe la cantidad de 25 pesetas en lugar de 15 que antes se pagaba” (Iturria: Aramako Udal Artxiboa, 1929-03-31).

“Ni mutiko kozkorra

nintzen garaian ezagutu nituen urte batean edo bitan beste txanbolintero batzuk, baina gainerantzean, dantzari eta pixka bat erokerian ibiltzen ginen garaian, Alegiako Ricardo Insausti, ‘Txintxarri’. Orain ere haren semea etortzen da festetan” (Iturria: Joxe).

“Ni gaztea nintzen garaian, San Martinetan herriko gazteak filarmonika bat ekarri nahi izaten genuen, baina herrian dirurik ez, eta gazteok dirua bildu eta soinu-jole bat ekartzen genuen, eskuko soinua jotzera” (Iturria: Joxe).

“Ni alkate nengoela, Gaintzako Eusebio zena ekartzen genuen, duro bat eta afaria da. Eta Villafrankako Aldaba zaharra ere bai. Eta Alegiko ‘Txintxarri’ ere bai. Alternatuz” (Iturria: Joxe).

“Digo yo Juan José de Unanue, maestro tamborilero, haber recibido de D. José Antonio Echaveguren tesorero de propios y arbitrios de la villa de Arama, la cantidad de cuarenta reales de vellón por el pago de mi trabajo de tocar el tamboril en los días once y doce de noviembre próximo pasado” (Iturria: Aramako Udal Artxiboa, 1870-12-14).

“Acto continuo el Sr. Presidente manifestó que habría que llamarle como

en años anteriores, al tamborilero de Alegría de Oria para dos días de fiestas de S. Martín” (Iturria: Aramako Udal Artxiboa, 1925-11-08).

“También se acuerda de que en el día de la fecha se traiga el tamboril para dar fin a la fiesta, no admitiendo ninguna otra música de ninguna clase que se pongan a tocar en la vía pública (Iturria: Aramako Udal Artxiboa, 1926-11-14).

(...)

Udalak ezezik, herritarrek ere herriko festetan dextente gastatzen zuten. Kontuan izan, batetik, baserrietan gonbidatuak izaten zirela (egun hauek senideekin bazkaltzeko egunak ziren, batez ere, osabazibea, lehengusu... Gero honek bere ordaina zekarren: gonbidatuak izatea beste noizbait). Eta bestetik, festetarako etxea propio zuritzen zela. Baserrietako etxeoandreek lan franko izaten zuten, beraz, egun hauetan.

“Bezperatik hasten zen jendea etortzen: osabak, lehengusuak... Gonbidatuak. Ni nerori etxean ezagututa nago hogeita hemezortzi lagun. Eta garai hartan, gainera, gauean ere batzuek etxean gelditzen ziren hurrengo egunerako, inon lo egiteko tokirik ez eta ganbaran lasto pilan lo eginez. Jendea, gainera, gauean barrez eta jolasean ibiltzen zen.

Jan ere orduan halakoe-tan, bestela izango ez bazen ere, pixka bat extraordinarioxeago jaten zen. Oiloa edo. Garai hartan gaurko konturik ez zen” (Iturria: Joxe).

“Garai batean, festa aurretik urtero igeltseroa ekartzen zen, letxerarekin etxea zuritzeko. Festetan kriston jende pilak izaten ziren” (Iturria: Felipe).

ETXEBIZITZAK

salgai

Beasainen, Nafarroa Etorbidetan, etxebizitza salgai. 943085246.

Beasainen, etxebizitza salgai. 943027073 - 680238512.

Itsasondan, etxea salgai, berritzeko. Baratzarako aukerarekin. Aukera ona. 696218195.

Seguran etxebizitza salgai. 67 m². 2 logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Garaje itxia. 615756863.

LOKALAK

errentan eman

Zegaman 90 metroko biltokia alokatzen da. 943801107 - 695722341.

GARAJEAK

salgai

Ormaiztegin lurrazpiko garajea salgai. 676987135.

IBILGAILUAK

salgai

Volkswagen Polo autoa salgai. 4 ate. 47.000 km. Egoera paregabea. 665731067 - 943885445.

Fiat Punto salgai, prezio onean. 619002492.

ANIMALIAK

salgai

Poniak salgai. Arrak eta emeak. 636908697.

LANA

eskaerak

Ileapaintzailea behar da Alegi aldean. 617546690.

Zerbitzaria behar da Ordizian. 14 paga eta oporrak. 687609093.

eskaintzak

Gauetz adineko pertsonak zaintzeko esperientziadun eta formakuntza duen emakumeak eskaintzen da. 616889923.

Neska eskaintzen da informatikako klaseak emateko. Adin guztiak. Bi urteko esperientzia. Ainhoa. 679556586. aynoa82@hotmail.com

Emakumea etxeko lanak egiteko edota gaixoak zaintzeko prest dago. 652701620.

Iragarki laburrak:

Hitz bakoitzeko 0,60 euro

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

Harremanetarako:

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info

gh@goierrikohitza.info

BESTELAKOAK

salgai

Gerezi egurrezko logela berria salgai. Osagaiak: 2,5 metroko armairua, 1,30 metroko komoda, 1,18 metroko gaudaia, 1,5 metroko ohea. Baita ere, marrazketa mahaia bere aukiarekin eta 25 hatz beteko Philips markako telebista. 943889903 - 620307656.

Solarium bertikala salgai.

1.200 euro. Egoera oso onean. 943883180.

erosi

Trikitixa erosiko nuke. 4 bozako, 1lb. 943085039.

Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
Beasain 943 160 120
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH
- ✓ Batxilergoa
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Arreta pertsonalizatua
- ✓ Talde txikiak

INGELERA

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Haurrak: 6 urtetik aurrera
- ✓ Azterketa ofizialak prestatzeko aukera (KET, PET, First Certificate)

TAILERRAK

- ✓ Ikasketa teknikak
- ✓ Barreterapia
- ✓ Erlajazio teknikak
- ✓ Nola aurkitu lana
- ✓ Jende aurrean hitzegi
- ✓ Emozioen kontrola

INFORMATIKA

- ✓ Photoshop
- ✓ Power point
- ✓ Web orrien diseinua
- ✓ Office
- ✓ Mekanografia



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049

☎ 943 187 045

Ondramuño baserria

IDIAZABAL



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



Beasain

Udazken kulturala

Azaroak 3, osteguna:

22:30etan: Antzerkia: Txalo taldeak 'Artea' antzeztuko du, Usurbe Antzokian.

Azaroak 4, larunbata:

10:00etan: Bertako elikagaien azoka berezia, Loinazko San Martin plazan.

12:00etan: Odolki-dastatzea eta lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

18:30etan: Dantza jaialdia Aurtzaka dantza-taldearekin, Loinazko San Martin plazan.

Azaroak 5, igandea:

08:00etan: Murumendira eta Garina mendi-irteera 'finalistaren eguna' ospatzeko.

12:00etan: Tolosako bandaren kalejira.

13:00etan: Tolosako bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan.

17:30etan: Eskulan-tailerra, Joan Iturralde plazan.

18:30etan: Dantzaki dantza-eskolako eta Gala ballet eskolako irakasleen eta ikasleen dantza-erakustaldia, Loinazko San Martin plazan.

Azaroak 7, asteartea:

09:00etan: XIX. Errezil sagar, fruitu eta barazki lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

Azaroak 8, asteazkena:

19:00etan: Beasaingo Paperak bildumaren 14. zenbakiaren aurkezpena, Usurbe Antzokian. Gaia: 'Beasaingo musikak'.

Beasain

XXII. odolki dastatze eta lehiaketa

Azaroak 4, larunbata:

10:00etan: Bertako jeneroen azoka irekiko da.

12:00etan: Odolki dastaketa eta lehiaketa. Odolki pintxoak dastatzeko aukera.

13:00etan: Lehiaketa, irabazlearen aukeraketa eta sarien banaketa.

15:00etan: Bazkari herrikoia, Loinazko San Martin plazan. Menua: Beasaingo odolkia, Tolosako babarrunak, Ibarako piperrak, saiheskia, lukainkak... Ondo-ren Martintxoak eta Julkiko tarta.

18:30etan: Dantza jaialdia Aurtzaka dantza taldearekin.



Azaroak 9, osteguna:

17:00etan: Asmube abesbatzaren estreinaldia. Ipuin-kontaketa Maite Frankoren eskutik, Udaletxeko Batzar Aretoan.

21:00etan: Zine-kluba: 'El arco', Usurbe Antzokian.

Azaroak 10, ostirala:

22:30etan: Aukeran dantza konpainiak 'Bideak' ikuskitzuna aurkeztuko du, Usurbe antzokian.

Azaroak 11, larunbata:

17:00etan: Haurrentzako antzerkia, Usurbe antzokian: Cantervilleko mamua. Emanaldirako gonbidapenak Usurbe Antzokiko leihatilan banatuko dira azaroaren 2tik aurrera.

19:00etan: 'Dixieman Jazz band' taldearen kalejira herriko kaleetan zehar.

Azaroak 12, igandea:

19:30etan: Organo kontzertua, Esteban Elizondoren eskutik, Andre Mari Zeruratuen parrokan.



Beasain

Astigarreta auzoko San Martin jaiak

Azaroak 12, igandea:

11:30ean: Meza Nagusia, Beasaingo San Martin Parrokiako koruak abestuko du.

12:30ean: Herri kirolak, aizkolariak: Azurmendi-Arrospide

14:00etan: Herri Bazkaria. Zeberio, Mañukorta eta Goikotxea bertsolariak eta Laja-Landakanda trikitilari-ekin girotua.

Goierri

‘Euskal Herriak autodeterminazioa’

Ezker Abertzaleak, ‘Euskal Herriak autodeterminazioa kanpainaren barruan, larunbaterako, azaroaren 4rako, eskualdeko manifestaziorako deia egin du. Beasainen izango da, arratsaldeko 7etan, Zubimuzu plazatik abiatuta.

Azaroan, herriz herri ere beste hainbat ekitaldi antolatu dira.

Ataun:

Azaroak 7: Hitzaldia San Gregorioko elkargunean, 20:00etan. Gaia: Egoera politikoa.

Beasain:

Azaroak 4: Konzentrazioa, Zubimuzu plazan, 12:00etan.

Idiazabal:

Azaroak 17: Konzentrazioa, 19:30ean, plazan.

Azaroak 23: Hitzaldia 19:30ean, Pilar Enean. Gaia: Egoera politikoa.

Lazkao:

Azaroak 25: Herri afaria.

Legorreta:

Azaroak 17: Konzentrazioa, plazan, 20:00etan.


Segura:

Azaroak 24: Autodeterminazioaren aldeko herri jaia, arratsaldean, herriko plazan.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐ **Goierri** 24 euro Egin ☒ bat ☐ **hitza** 60 euro
aukeratutako kaxan

☐ **Goierri** + **hitza** 65 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza 7 behe, Beasain



Herriko haurrak Aramako plazan 1974-75 ikasturtean

Zutik, ezkerretik eskuinera: Josu Olazabal, Manuel Tello, M^a Dolores Agirre (irakaslea), Emilio Arizmendi, Manuel Mari Unanue, Patxi Etxeberria, Mertxe Oiarbide, M^a Eugenia Arizmendi, M^a Teresa Zurutuza, M^a Luisa Erauskin.

Aurreko ilaran: Imanol Olazabal, Jesus M^a Oiarbide, Ana Garmendia, M^a Jose Olazabal, Beatriz Beloki, Maite Olazabal, Patxi Arizmendi, Jesus M^a Etxeberria, Isabel Tello, Luis Tello, Jesus M^a Beloki.



**RENAULT
LAZKAO GARAJEA**

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04



Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**



GARBITASUNA ETA DIZDIRA NAGUSI GAINAZALEAN

GARBIKETA ZERBITZU OROKORRA

BULEGOAK | LANTEGI ETA TAILERRAK | GARAJEAK | ATARIAK
ETXEBIZITZAK | BIZILAGUN KOMUNITATEAK | ETABAR.

Zepai, 5A | 20213 Idiazabal | M 637752571 | T 943187168

reklone

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Haurrentzako
behar duzun guztia



Araba kalea, 1
ORDIZIA
Tel.: 943 88 15 13
www.sehaska.es

